

Nola erabili irudiak behar bezala?

Nola egin eta erabili argazkiak



Argazki-lanek egile-eskubideen babesa dute. Argazki soilak (argazki-lantzat hartzeko bezain original ez direnak) eskubide hurkoaren bidez babesten dira.



- Argazki-lanak eta argazki soilak erabiltzeko, beharrezkoa da egilearen baimena.
 - Argazkilariak erabaki dezake nola erabiltzen diren.
 - Argazkia egin bezain pronto, egile-eskubideak edo eskubide hurkoak sortzen dira argazkilariaren alde.
 - Haurrek ere jasotzen dute babesaren egiten eta hartzen dituzten argazkiengatik.



Zer irudi erabil ditzaket?

- Zeuk egindako edo ateratako argazkiak erabil ditzakezu.
- Egon daiteke baimenduta beste pertsona batzuek egindako edo ateratako argazkiak erabiltzea, baldin eta

1. Egile-eskubideak ez badaude indarrean.

- Argazki-lan batek 70 urteko babes-epea izaten du, argazkilaria hiltzen denetik aurrera. Argazki soilak 25 urtez egoten dira babestuta, egiten direnetik aurrera.
- Bi kasuetan, argazkia egin eta hurrengo urteko urtarrilaren 1ean hasten da kontatzen epea.



Zer irudi erabil ditzaket?

2. Creative Commons lizentzia batekin.
3. Eskubideen titularraren edo hura ordezkatzeko duen erakunde kudeatzailearen baimenarekin (Espainiaren kasuan, VEGAP arduratzen da, Artista Plastikoak Kudeatzeko Ikus Erakundea).



Atera ditzaket argazkiak?

- Leku publikoetan egin daitezke argazkiak.
 - Leku publikotzat hartzen dira, esaterako, kaleak edo parkeak.
 - Leku publikoetan pertsonen argazkiak ere atera daitezke, horretarako baimena izanez gero.
 - Leku publiko batean, gerta liteke toki horren jabeak (museo batean, kasu) argazkiak galaraztea.



Atera ditzaket argazkiak?

- Irudiko subjektuak ere eman diezaioke ezezkoa argazkiak egiteari.
- Espazio pribatu batean –norbaiten etxean, adibidez–, baimena behar da argazkiak egiteko.
- Kontuan izan ez direla gauza bera argazki bat egitea eta argazki bat argitaratzea.



Argitaratu dezaket argazki bat?

- Argazkiak argitaratzeak ez ditu iraindu behar haietan agertzen diren pertsonak.
 - Ondo irudituko litzaizuke argitaratu duzunaren tankerako zure argazki bat argitaratzea?
 - Ausartuko zinateke argazkia zure aitona-amonei erakustera?
 - Argazki bat argitaratzeko, komenigarria da beti baimena eskatzea bertan ageri diren pertsonari.



Gogoratu: aipatu beti iturriak

- Zure lanean, beti adierazi behar da argazkilariaren edo argazkiaren egilearen izena.
- Adibidez:
 - Irudia: Egilearen edo argazkilariaren izena
 - Interneteko irudia: Egilearen edo argazkilariaren izena. Irudiaren izena. Interneteko orriaren helbidea. Orria kontsultatutako eguna.

